

LEZOKO EH BILDU-REN EKITALDIA

Udal hauteskundeetako zerrendaren eta hautagaitzaren
ardatzen aurkezpena
2023-3-15, Gezala

Eneritz Arruti Osanbela eta Mireia Kuesta Unzain Lezoko EH Bilduren udal zerrendakideen hitzaldia

Garaipen gazi-gozo batetik gatoz. 2019ko udal hauteskundeetan EH Bilduk ez zuen alkatetza eskuratu. Baina, hauteskundeak irabazi zituen, emaitza oso onak lortuta, gainera: 1.418 lezoarren babesa eskuratu genuen.

Lezoko arazo nagusien inguruko gogoeta sakona egin eta etorkizuneko ildoak marrazteko balio izan zigun Lezo Errotik prozesutik gendozen, eta horrek ilusioa sortu zuen lezoar askorengan.

Baina EAJko eta PSEko zinegotziek bat egin zuten zerrenda bozkatuena izan zen EH Bilduren hautagaitzari alkatetza kentzeko.

Ordutik, igaro dira ia lau urte: pandemia, gerra, adimen artifiziala, **krisi klimatikoa, migrazio mugimenduak... Gizarte-eraldaketak berebiziko abiada hartu dute**, eta krisiak bata bestearen atzetik kateatzen ari zaizkigu: **osasun krisia**, krisi politikoa, ekologikoa, soziala...

Inoiz baino gordinago datorkigu zalantzez eta galderez betetako etorkizuna. Horrek zaildu egiten du etorkizun desiragarri eta sinesgarri bat, proiektu politiko bat amestea, irudikatzea eta partekatzea. Horrela, gizartea zatikatzea eta indibidualizatzea bultzatzen dute.

Horrek guztiak, jendearen beldurrak haizatuz, eskuin muturraren indartzea ekarri du: gairak jabetza jabetzen genituen diskurtso eta jarrerak eguneroko ogi bilakatu zaizkigu. Bide beretik, ondorengo urteotan,

estatuen zentralizazioa eta inboluzioa aurreikusi litezke.

Aktoreen eta indarren berrorekatzeko bat gertatzen ari da, dudarik gabe, betikoek botereari eutsi diezaioten. Eta bide horretan kokatu daiteke, besteak beste, **zerbitzu publikoen pribatizazioa** eta merkatuko aktoreen esku hartzea erabaki politikoetan.

Horiek guztiak esanda, Lezo txiki geratu dakiguke, guretik ezer gutxi egin genezakeela pentsa genezake. Baina hori ez da horrela, gure ustez.

Testuinguru horretan, izan ere, **inoiz baino biziago nabari da gizakion taldetasun beharra**. Heldulekua eta babesa eskaintzeaz bat, nor izaten lagunduko digun komunitatearen beharra.

Ezkerreko independentismoak datozen urteotarako egitasmo eta alternatiba politiko sendo, integral, osatu, berritu eta ilusionagarria aurkeztu behar dio Euskal Herriari. Herritarren behar, interes eta desirekin bat eginen duena, gaurko eta biharko erronkei erantzungo diena, eta egitasmo hori alternatiba egingarri bihurtu beharko da.

Horretarako, gure indargune nagusia udalgintzan dugu. Euskal Herriko udaletan lehen indarra gara, eta indar hori baliatu behar dugu gure herriarentzat bestelako proiektu bat irudikatzeko eta praktikara eramateko.

Abantaila bat dugu: herritarrengandik hurbilen dauden instituzioak dira udalak. Herriarekin hitz egiteko, euren beharren eta nahien berri izateko, eta bueltan gure proposamenak eurekin eztabaidatzeko instituzio pribilegiatuak dira udalak.

Baina Lezon ikusi dugu azken lau urte hauetan zer den, herriari bizkarra emanda, herriarekin beharrezko elkarrizketak zabaldu gabe gobernatzea. Ez hori bakarrik, kudeaketa gaitasun kaskarraren, utzikeriaren eta lagunkeriaren adibide garbiak ikusi ditugu azken lau urteotan Lezoko udalean, EAJ-PSEren udal gobernuan:

- **Pandemiari erantzuteko inizatiba falta.**

- **Hasi ere egiten ez diren kiroldegiko obrak.**
- **Amaitezinak diruditen Lopeneko eta Euskal Herria plazako obrak.**
- **Lezoko ur emariak galtzea.**
- **Utzikeriaren ondorioz eskura genituen diru laguntzak galtzea.**
- **Inolako azterlanik gabeko soldata igoerak...**

Udalaren etorkizuna hipotekatzen duten erabakiak hartu dira, azterketa seriorik eta herritarrekin erabakiak partekatzeko inolako biderik landu gabe.

EH Bilduren aldetik, anabasa hori geratzeko eta Lezorentzat proiektu ilusionagarria eskaintzeko prest gaude. Beste egiteko modu bat dugula erakutsi eta lezoarrak beren herriaren etorkizunaren gidari bilakatu nahi ditugu. Indibidualismoa bultzatzen duten indarrei aurre egin eta Lezoko eragileekin eskuz esku, herriko komunitate bizitza eta indarra hauspotu nahi dugu.

Eta, gainera, Lezoko erronkak eta lanerako ardatz nagusiak argi ditugu. Lezo Errotik prozesuan jarri genuen oinarritik abiatuta, lau urte hauetan ikasitakoak ardatz horiek definitzen lagundu digu.

Izan ere, pandemiak inoiz baino argiago erakutsi zigun, herritar guztiak zaurgarriak garela, eta elkar zaintzea ezinbestekoa dela. Lezoko herria bere herritarrak zainduko dituen herria, guztiok elkar zainduko dugun herria bilakatzea nahi dugu. Herritar bakoitzaren oinarritzko behar sozialei, emozionalei eta afektiboari erantzuneko dien herria eta komunitatea osatu nahi dugu

Hiru ardatz estrategiko definitu ditugu:

- **1. Herritarrak zaintzetik abiatuko ginateke. Kasu horretan, egoera zaurgarrienean dauden herritarrei arreta berezia jarrita.** Hori, eta etorkizuneko gizartearen zahartze prozesua aintzat hartuta, adinekoen gizarte-taldearen gabeziak, beharrak, nahiak... sakon ezagutzea eta horiei erantzutea izango da gure zeregin nagusia.
- **2. Inguruneari dagokionez, klima krisialdia gero eta**

presenteago dago gure gizartean, eta argi dago bizitza osasungarriak izateko ezinbestekoa dela ingurugiroa ere zaintzea. Kasu honetan trantsizio energetikoan jarriko dugu arreta nagusia.

- **Eta 3. Aurreko guztiari erantzuteko azpiegitura eta zerbitzu egokiak eskaini behar dizkiogu lezoarrei. Une honetan, herritar askoren kezka eta gabeziak gure herrian mugikortasunarekin eta aparkalekuekin lotzen dira. Hortaz, hor kokatu beharko dugu gure arretaren gune nagusietako bat, ildo honi dagokionez.**

Horiek guztiak ezinbestekotzat jotzen ditugu bere herritarrak zainduko dituen herria eraikitze bidean, eta, **horrekin batera, herri-bizitza eta herri-kultura ere ezinbesteko osagai gisa ikusten ditugu, herria bera zaintzeko. Bide horretan, komunitatea bera trinkotzea eta sendotzea zeharlerro gisa landuko da herri-programako proposamenak lantzeko garaian.**

Datozen lau urteetan gure lana eta indarra bideratuko dituzten ardatzak dira horiek, baina beharrezkoa da ardatz orokor horietatik abiatuta ekintza zehatzak mahai gainean jartzea.

Horretarako, zuen ekarpena ezinbestekoa zaigu, zuen arazo, kezka eta beharrak ezagutu nahi ditugu. Horrela, **kezka eta behar horiek aseko dituen Lezoko EH Bilduren programa osatzeko asmoz, prozesu berri bat jarri dugu martxan.**

Elkarte eragileekin hitz egingo dugu (ari gara jada), batzar irekiak egingo ditugu, gai desberdinen inguruan adituen gomendio eta aholkuak entzungo ditugu, ahalik eta informazio osoena eta zuzenena zuei zabaltzeko.

Leku finko bat ere izango dugu, martxotik udal hauteskundeak bitarte bulego bat izango dugu. Datorren larunbatean Zubitxon gure Bilgunea zabalduko dugula aurreratu nahi dizuegu.

Kalera goaz, auzoetara, zuengana, denongana iritsi nahi dugu, zuen ekarpen guztiak entzun nahi ditugu. Zuek zaretelako herria ondoen ezagutzen duzuenak. Zaintza gertutik ematen delako.